

**Gizarte inklusioa****EAE-KO ONCEK ETA EROSKI-K BERRITU EGIN DUTE IKUSMEN
DESGAITASUNA DUTENAK GIZARATERATZEKO DUTEN
LANKIDETZA**

- Hitzarmena eginda, konpromisoa areagotu dute bi erakundeek itsuen edo ikusmen desgaitasuna dutenen gizarte inklusioarekin eta autonomia pertsonalarekin.
- EROSKIren ekarpenak balioko du jarduera kulturalak, prestakuntzarakoak eta aisialdikoak garatzeko EAEn ONCEra afiliatuta daudenentzat.

Bilbo, 2026ko ekainaren 25a.– EAeko [ONCEk](#) eta [EROSKI](#)k berriitu egin dute beren lankidetzaren hitzarmena, eta jarraituko dute ekimenak bultzatzen itsuen eta ikusmen desgaitasuna dutenen inklusioaren alde, bai eta autonomia pertsonalaren alde ere. Honako hauek izenpetu duten hitzarmena: EAEn ONCEk duen ordezkari Usue Vallejo Delcanek eta EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendari Alejandro Martinez Berriochoak.

Hitzarmenari esker, jarduera kulturalak, prestakuntzarakoak eta aisialdikoak garatzen jarraituko dute EAEn ONCEra afiliatuta daudenentzat. Tailerrak, konferentziak, txangoak eta bestelako aktibitateak eginez, indartu egingo dute partaidetza soziala, eta tresnak eta ezagutzak emango dizkiete autonomia pertsonal handiagoa lortzen lagunduko dietenak.

Gainera, EROSKIren ekarpen ekonomikoa egitea dago jasota kolaborazio honetan, eta, horrekin, ONCEk EAEn bultzatzen dituen programa horiek garatzen lagunduko da.

ONCEk EAEn duen ordezkari Usue Vallejo Delcanek hauxe esan du: "*Bi erakundeek lankidetzaren bidez, jarduerak bultzatuko ditugu, itsuek edo ikusmen desgaitasuna dutenek jarrai dezaten gizartean parte hartzen, autonomia pertsonala lantzen eta aukera berdintasuna izaten. EROSKIri esker, jarrai dezakegu ekimenak garatzen eta gizarte inklusiboago bat sustatzen*".

EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak, berriaz, honela esan du: "*Gizarte ekintza EROSKIren nortasunaren parte da. Hitzarmen honek indartu egiten du gizarte inklusioarekin dugu konpromisoa, horrela lagundu egiten baitugu*".

**EROSKI – Komunikazio Korporatiboko
zuzendaria**

Patricia Martín Sanchidrián

Tel: 946 211 214 comunicacion@eroski.es

**ONCE EUSKADI
ONCE-Euskadi Lurralde Ordezkaritza**

Tel:
944701162/63 Ct-paisvasco@once.es

ikusmen desgaitasuna dutenen autonomia pertsonalean eta bizi kalitatean. Beraz, jarraituko dugu horrelako erakundeekin lanean, funtsezko zeregina betetzen baitute gizartea gero eta bidezkoagoa, eskuragarriagoa eta inklusiboagoa izan dadin".

EROSKIk ibilbide zabala darama gizarte erakundeekin lanean, inklusioa, elkartasuna eta kolektibo zaurgarrien babesa bultzatzeko. Elkartasun Planaren harira, gizarte erakunde ugariarekin aritzen da kooperatiba, eta aukera berdintasuna eta gizarte kohesioa sustatzen duten ekimenak garatzen ditu.

Bi erakundeek berretsi egin duten elkarrekin aritzen jarraitzeko borondatea helburu jakin batekin: gizarte inklusiboagoa eta eskuragarriagoa sustatzea, eta, hala, gizarteko arlo guztietan ikusmen desgaitasuna dutenen partaidetza betea mesedetzea.

EROSKIrri buruz

EROSKI banaketa talde liderretako bat da Espainia iparraldeko merkatuan —Galiziatik Balearretara—, %12,32ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian; lidergoan da halaber Balearretan ere. 2025aren amaieran, 1.508 saltoki zituen bere sare komertzialean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatuak, baita optikak, kirol dendak eta elikagaien arlokoak ez diren beste jarduera batzuk ere. Horretaz gainera, 6 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 28.200 lagunek baino gehiagok osatzen dute langile taldea; horietatik 8.300, berriz, bazkide eta jabe dira.